

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

767

423/2019 EBAZPENA, urriaren 28koa, Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena. Honen bidez, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko Erakunde Sanitario Integratuan Medikuntza Fisiko eta Errehabilitazioko Atal Sanitarioko buru lanpostua lehiaketaren bidez betetzeko deialdia egiten da.

Debagoieneko ESIan Medikuntza Fisiko eta Errehabilitazioko Osasun-ataleko buru lanpostua hutsik egonda, lanpostua lehiaketaren bidez betetzeko deialdi publikoa argitaratzea erabaki du Zuzendaritza Gerentzia honek, arau hauetan xedatutakoari jarraiki: Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko 1997ko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluko Hirugarren Arau Komuna, zerbitzuburu eta atalburu medikoen lanpostuak betetzeari buruzko Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1/2016 Jarraibideak, Osakidetzako lanpostu funtzionalak arautzen dituen 2005eko uztailaren 19ko 186/2005 Dekretua eta 1997ko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua. Hauexek dira oinarriak:

OINARRIAK

1.– Parte hartzeko betekizunak.

Deialdi honetan parte hartu ahal izango dute betekizun hauek betetzen dituztela egiaztatzen dutenek:

a) Estatutupekoa, funtzionario edo lan-kontratudun finkoa izatea Osakidetzako edozein zerbitzu-erakundetan edo estatutupeko langile finkoa izatea Osasun Sistema Nazionaleko Erakunde Sanitarioetan eta zerbitzu aktiboan egotea edo eskainitako lanpostuaren lanbide-talde berari dagokion kategoria bateko lanpostua erreserbatzea dakarren beste administrazio-egoera batean egotea.

b) Deitutako lanpostuari dagozkion titulua eta espezialitatea edukitzea.

c) Gutxienez, 3 urteko lan-esperientzia izatea Medikuntza Fisiko eta Errehabilitazioko fakultibo espezialista mediko gisa.

d) Uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan eta Osakidetzako Euskara Planean ezarritako gainerrako betebeharrak betetzea. Lanpostuaren HE: 2; derrigortasun-data: 2020-12-03.

2.– Deialdia argitaratzea.

Deialdiaren ebazpena osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA), Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian.

3.– Eskaerak egiteko epea eta aurkezteko modua.

Interesdunek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Debagoieneko ESIko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali behar dute eskaera (Nafarroa Etorbidea 16, 20500 Arrasate/Mondragón), hamabost egun balioduneko epean, dagozkion aldizkari ofizialetan Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo

egunetik aurrera. Halaber, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako eran ere aurkeztu ahal izango da.

Debagoieneko ESiko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute eskabidea interesdunek, datu pertsonal guztiekin eta dokumentatutako «curriculum vitae»-rekin batera, helbide honetara: Nafarroa Etorbidea, 16, Arrasate/Mondragón. Honako hauek osatuko dute dokumentazioa:

- a) NANaren, pasaportearen edo gidabaimenaren fotokopia konpultsatua.
- b) Funtzionario edo estatutupeko langile izendapenaren fotokopia konpultsatua edo, hala bada-gokio, lan-kontratu finkodun langilea izatea egiaztatzen duen agiriarena.
- c) Eskatutako titulazioaren fotokopia konpultsatua.
- d) Deialdia EHAAan argitaratu arte egindako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiri eguneratua, dagokion kategoria adierazita.
- e) Bete nahi den zerbitzuaren Kudeaketako Memoria-proiektua.

CV aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden alderdiak ez dira ziurtatu behar izango aurreko paragrafoan ageri den moduan; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran.

4.– Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Debagoieneko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko eta, bazterturik egonez gero, baztertzeko arrazoia ere adieraziko da. Era berean, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian eta Debagoieneko ESiko intranetean argitaratzeko aginduko du horren bidez eta hamar egun balioduneko epea emango du erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Baztertu izanaren arrazoia zuzendu daitekeen akatsa izanez gero, aipatutako behin-behineko zerrenda horren argitalpenaren bidez eskatuko zaie interesdunei hamar egun baliodunen epean atzemandako akatsak zuzentzeko edo derrigorrezko dokumentuak bidaltzeko, horrela egin ezean prozesutik kanpo geldituko direla behin betiko jakinarazita.

5.– Onartuen eta baztertuen behin betiko zerrenda.

Erreklamazioak egiteko edota akatsak zuzentzeko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda argitaratuko du ebazpen bidez Debagoieneko ESiko zuzendari gerenteak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko web-orrian eta Debagoieneko ESiko intranetean.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea egongo da ebazpen web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

6.– Balorazio Batzordea.

Debagoieneko ESiko Zuzendaritza Gerentziaren Ebazpen bidez eratuko da Balorazio Batzordea; hauexek izango dira batzordekideak: zuzendari medikoa (batzordeburua), Pertsonaleko zuzendaria (idazkaria, ahots eta botoarekin) eta hiru kide –horietako bat, IVAPek izendatua–; batzordekide horiek izangaiei eskatutako titulazioa eta espezialitatea eduki behar dute, estatutupeko langile finko, karrerako funtzionario edo kontratupeko langile finkoak izan behar dira eta deitutako lanpostu funtzionalaren maila bereko edo maila altuagoko lanpostua eduki behar dute hierarkikoki.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea egongo da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Balorazio-batzordeko kide guztiak nor bere izenean egongo dira haren barruan. Independentiak izango dira funtzionamenduan eta diskrezionalitate teknikoaren babespean jardungo dute, zuzenbidearekiko menpekotasunari kalterik egin gabe.

Batzordekideek ezingo dute jardun Sektore Publikoko Erregimen Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan jasotako egoeraren baten eraginpean egonez gero eta deialdia egiten duen agintaritzari jakinaraziko diote. Horrelakoetan, interesdunek ere errekusazioa egin dezakete edozein unetan, aipatutako lege-testuaren 24. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Era berean, Balorazio Batzordeak aipatutako 40/2015 Legearen 15. eta ondorengo artikuluetan zehaztutako arauen arabera egokituko du jarduna.

Batzordekide guztiek ahots eta botoarekin jardungo dute eta erabakiak boto-gehiengoz hartuko dira; erabakiak aktan jaso behar dira.

Batzordeak erabateko autonomia funtzionala izango du, prozeduraren legaltasuna zainduko du eta objektibitatea bermatzeaz arduratuko da. Halaber, deialdiaren oinarriak aplikatzerakoan sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu eta horietan aurreikusi ez diren kasuetan zein irizpide erabili behar den erabakiko du. Horretaz gain, hautagaiak ebaluatu aurretik, aktan jaso beharko ditu ebaluazioko irizpide espezifikoak, oinarriak eta bertan jasotako meritu-baremoak kontuan hartuta.

7.– Izangaiei deialdia egitea.

Proiektuaren defentsa publikoa egiteko deituko zaie izangaiei, 10 egun aurretik gutxienez. Deialdian adieraziko da noiz, non eta zein ordutan egingo den; Osakidetzaren web-orrian jarriko da haren iragarkia.

Proiektuen defentsa publikoaren aurretik, izangaiek betekizunak betetzen dituztela eta ez dagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23 eta 24. artikuluetan jasotako Abstentzio- eta Errekusazio-arrazoirik egiaztatuko du Balorazio Batzordeak.

Izangai bakoitzari deituko zaio ondoren, proiektuaren azalpena eta defentsa egin ditzan. Horren ostean, elkarrizketa bat egingo zaio eta, horren bidez, balorazio batzordeko kideek proiektuan jasotako alderdien inguruko galderak egingo dizkiote, gehiago argitzeko edo gaian sakontzeko. Proiektuaren azalpena eta defentsa nahiz elkarrizketa publikoak izango dira.

Izangaien azalpen publikoa amaitu ondoren, Balorazio Batzordeak izangai bakoitza puntuatuko du, deialdiaren oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.

8.– Merituen balorazioa.

Balorazio Batzordeak izangai bakoitzaren merituen balorazioa eta puntuazioa egingo du, deialdiaren oinarrietan aurreikusitakoaren arabera.

Inolaz ere ezingo dira baloratu Ebazpen hau EHAA-n argitaratzen den egunean eskuratu gabe dauden merezimenduak, ez eta eskaerak aurkezteko epea amaitu aurretik behar bezala alegatu eta ziurtatu ez direnak ere.

Ondoko eranskinean, hautaketa-prozesu honi aplikatu beharreko meritu-baremoa jasotzen da. Gehienezko puntuazioa 66 puntu dira, honela banatzen direnak:

- Proiektua eta defentsa (30 puntu, gehienez).
- Merituen balorazioa (30 puntu, gehienez).
- Euskararen ezagutza (6 puntu, gehienez).

Prozedura bi fasetan garatuko da:

A) Proiektuaren banakako aurkezpena eta jendaurreko elkarrizketa. Izangai bakoitzari deialdiaren oinarrien arabera puntuazioa emango zaio.

B) Merituen balorazioa, deialdiaren oinarrien arabera, banakako balorazio eta puntuazioarekin.

Izendatua izateko prozesu osoan behar den gutxieneko puntuazioa 33 puntu dira; proiektuaren balorazioan eta horren defentsan 15 puntu behar dira, gutxienez.

9.– Prozeduraren ebazpena.

1) Izangaiek aurkeztutako proiektuen eta curriculum-merituak ebaluatzeko fasea amaituta, Balorazio Batzordeak izendapenaren proposamena bidaliko dio Debagoieneko ESiko Zuzendaritza Gerentziari, puntuazio handiena lortu duen izangaiaren alde eginda eta baremoaren epigrafe bakoitzean hautagaiek lortutako puntuazioak modu xehatua adierazita. Ez baldin badago deialdian eskatutako betekizunak betetzen dituen izangairik edo eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzen ez badute, Balorazio Batzordeak Deialdia hutsik uztea proposatuko du. Proposamen hori Osakidetzako web-orrian argitaratuko da.

2) Egindako proposamena kontuan hartuta, ebazpena emango du Zuzendaritza Gerentziak proposatutako izangaia deitutako lanpostua betetzeko izendatzeko edo hutsik utziko du. Azkeneko kasu horretan, arrazoa adierazi beharko du. Arrazoa hauetako bat izan beharko da: a) ez da izangairik aurkeztu, b) ez dago aurkeztutako izangaien artean deialdiaren oinarrietan eskatutako betekizunak betetzen dituenik, c) ez dago eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu duen izangairik. Aurreko a) atalaren kasuan, Zuzendaritza Gerentziak deialdia hutsik utzi dezake, onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda onartu ondoren, izapide gehiagorik egin gabe.

3) Izendapenaren Ebazpena interesdunei jakinaraziko zaie eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Osakidetzako web-orrian argitaratuko da. Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Ente Publikoaren Zuzendaritza Nagusian.

10.– Esleipenaren ondorioak.

Izendapen Ebazpenak ondorioak izango ditu EHAAan argitaratzen den egunetik aurrera, bertan besterik xedatu ezean behintzat.

Osasun-ataleko burua medikoaren izendapena lau urteko eperako izango da eta luzatu egin liteke gerora.

11.– Ebazpen honen aurkako errekurtsioak.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzaren Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Arrasate/Mondragón, 2019ko urriaren 28a.

Debagoieneko ESiko zuzendari gerentea,
LUISA DIEZ AZURMENDI.

ERANSKINA

Merituen baremoa (66 puntu, gehienez).

Merituen balorazioak fase hauek izango ditu:

I. Proiektua eta haren defentsa (30 puntu, gehienez).

Epaimahai kalifikatzailearen aurrean Atalaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko Memoria Proiektua azaltzea eta izangaiarekin elkarrizketa egitea da fase honen oinarria.

Fase honen puntuazioa honako bi ataletan dago xehatuta:

a) Zerbitzua kudeatzeko aurkeztutako Memoria Proiektuaren edukiaren balorazioa. (15 puntu, gehienez).

Kudeaketako Memoria Proiektuak honako atal hauek garatu beharko ditu, gutxienez:

a.1.– Antolaketa- eta kudeaketa-atala:

Zerbitzuaren organigrama, bai buruzagitza lanpostuaren bai horri atxikitako beste lanpostuen eginkizunak zein diren adierazten duena.

Zerbitzuak erakunde bereko beste zerbitzuekin duen harremana.

Zerbitzuko buruzagitzaren kudeaketa-plana, antolamendu-helburuak definituta, hobekuntzako arloak detektatu eta aztertuta eta horiek lortzeko behar diren neurri egokiak identifikatuta. Horrekin batera, esleitutako giza baliabideak, materialak eta ekonomikoak eraginkortasunez erabiltzeko konpromiso edo plana.

a.2.– Arreta-atala:

Arreta-zerbitzu zorroaren azalpena.

Arreta-adierazle eta -helburuak ezartzea, horien jarraipena eta ebaluazioa etengabe egiteko sistemarekin batera.

a.3.– Irakaskuntza- eta Ikerkuntza-atala:

Zerbitzuan irakaskuntza-plangintza bat ezartzea.

b) Jendaurreko azalpena Balorazio Batzordearen aurrean eta elkarrizketa, haren ostean. (15 puntu, gehienez).

Proiektuaren jendaurreko azalpena baloratzerakoan, Memoria Proiektua defendatzeko izandako argitasun eta laburtasuna hartuko dira kontuan, baita haren arlo garrantzitsuenak azaltzeko gaitasuna ere.

II.– Merituen balorazioa (30 puntu, gehienez).

Honelaxe banatuko da puntuazioa:

II.1.– Lan-esperientzia (13 puntu, gehienez).

– Dagokion espezialitatean fakultatibo gisa lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,050 puntu.

– Dagokion espezialitatean atalburu gisa lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,075 puntu.

– Dagokion espezialitatean zerbitzuburu gisa lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,100 puntu.

Lan-esperientziari dagokionez, Osakidetzako, Gizarte Segurantzako eta autonomia erkidegoetako osasun-zerbitzuetako edo edozein administrazio publikotako zerbitzu-erakundeetan egindako lana hartuko da kontuan, bai eta Europar Batasuneko gainerako estatueta sare publiko osasun-zerbitzuetan egindakoa ere.

Zenbaketa osoa lan egindako egun naturaletan oinarrituta egingo da, eta baztertu egingo dira hilabetetik beherako soberakinak. Honetarako, hilabetetzat 30 egun naturaleko multzoa hartuko da.

II.2.– Prestakuntza, Irakaskuntza eta Ezagutzaren hedapena (17 puntu, gehienez).

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua bakarrik agertzen denean, 0,1 puntukoa izango da puntuazioa kreditu bakoitzeko.

II.2.1.– Prestakuntza kudeaketa arloan (3 puntu, gehienez).

Osasun-kudeaketari lotutako ikastaro bakoitzeko, iraupenaren arabera:

– 20 eta 30 ordu artean: 0,20 puntu.

– 31 eta 50 ordu artean: 0,30 puntu.

– 51 eta 100 ordu artean: 0,40 puntu.

– 11 eta 200 ordu artean: 0,50 puntu.

– 200 ordutik gora: 1,25 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta hala badagokio, elkargo profesionalak eta elkarte zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak baloratuko dira, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioan arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa plan baten barrukoak ez badira.

II.2.2.– Espezialitateko etengabeko prestakuntza (3 puntu, gehienez):

Dagokion lanpostuaren espezialitateari lotutako ikastaro bakoitzeko, iraupenaren arabera:

– 20 eta 30 ordu artean: 0,20 puntu.

– 31 eta 50 ordu artean: 0,30 puntu.

– 51 eta 100 ordu artean: 0,40 puntu.

– 101 eta 200 ordu artean: 0,50 puntu.

– 200 ordutik gora: 1,25 puntu.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta hala badagokio, elkargo profesionalak eta elkarte zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak baloratuko dira, eta baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioan arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa plan baten barrukoak ez badira.

II.2.3.– Graduondoko prestakuntza (5 puntu, gehienez):

- Doktorea: 3 puntu.
- Cum laude doktorea: 4 puntu.
- Graduondoko masterra: 2 puntu.
- Unibertsitate-aditua edo -espezialista: 1 puntu.
- Ikertzeko nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan: 1 puntu.
- Doktoretza-ikastaroak: doktoretza-ikastaroetako bikain edo ohorezko matrikula bakoitzeko (10 ikastaro, gehienez): 0,10 puntu.

Ez dira baloratuko doktore titulua, cum laude doktore titulua, ikertzeko nahikotasuna edo ikasketa aurreratuetako diploma lortzeko balio izan duten programetako doktoretza-ikastaroak.

II.2.4.– Jarduera zientifikoa (3 puntu, gehienez):

Dagokion espezialitateari lotutako lan zientifikoak argitaratzeagatik, txostenak edo komunikazioak aurkezteagatik eta hitzaldiak edo mahai-inguruak egiteagatik:

- Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,25 puntu.
- Estatuko txosten bakoitzeko: 1 puntu.
- Nazioarteko txosten bakoitzeko: 1,5 puntu.
- Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,15 puntu.
- Estatuko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,60 puntu.
- Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1 puntu.
- Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,20 puntu.
- Estatuko mahai-inguru bakoitzeko: 0,75 puntu.
- Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 1,25 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 1 puntu.
- Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5 puntu.
- Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
- Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 1 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 1 puntu.
- Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): 0,5 puntu.
- Tesinako: 1,5 puntu.

II.2.5.– Irakaskuntzako jarduera (3 puntu, gehienez):

- Medikuntza Fakultateko katedraduna, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 1 puntu.

– Medikuntza Fakultateko irakasle titularra, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,50 puntu.

– Medikuntza Fakultateko irakasle elkartua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,25.

– Egoiliarren irakaskuntzarako tutore akreditatua, dagokion espezialitatean (urte bakoitzeko): 0,50 puntu.

– Irakaskuntza, etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan (orduko): 0,05 puntu.

III.– Euskararen ezagutza (6 puntu, gehienez).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuak eta berau garatzen duten arauak xedatutakoaren arabera egingo da balorazioa.